

IRUZKINAK

Programazioaren helburuak

- Helburuek oinarrizko gaitasunak islatzen dituzte
- Irakasgaiaren helburu orokorrei lotuta daude
- Zer, nola eta zertarako galderei erantzuna ematen diete.
- Helburuek curriculumean adierazita dauden prozedurazko, kontzeptuzko eta jarrerazko edukiak biltzen dituzte.
- Helburu guztiak ebaluazio-irizpideetan daude islaturik.

Edukien denboralizazioa

- Ikasleek landuko dituzten edukiak ebaluazioz ebaluazio zehazten dira.
- Curriculumak adierazten dituen hiru motako edukiak ageri dira (prozedurazkoak, kontzeptuzkoak eta jarrerazkoak)
- Unitate bakoitza garatzeko denbora zehazten da
- Unitateak garatzeko aurreikusi den denbora ongi neurtuta dago

Metodologia

- Metodologia zehazten da
- Proposatzen den metodologia bat dator curriculumak zehaztutako helburuekin
- Unitate didaktikoen garapena zehazten da
- Irakasleek proposatzen dituzten unitateetan jarduera mota ezberdinak lantzen dira
- Ikasleak taldekatzeko irizpide ezberdinak zehazten dira (talde lanak, banakako lanak, irakaslearen azalpena...)
- Dibertsitateari erantzuteko errefortzu zein sakontze jarduerak zehazten dira.

Baliabideak (curriculum materialak, giza baliabideak, tokiak...)

- Testuliburuaz gain, liburua erabiltzen bada, beste baliabide batzuk erabiltzen dira
- Erabiliko diren baliabideak aipatzen dira
- Informazio eta teknologia berrien erabilera adierazten da
- Ikasgelaz gain, beste toki batzuk adierazten dira (liburutegia, laborategia, museoak, patioa, ingurua...)

Ebaluazioa: Ebaluazio tresnak, ebaluatzeko eta kalifikatzeko irizpideak

- Proposatutako diren helburuei loturik dauden ebaluazio-irizpideak zehazten dira
- Ebaluazio jarduerak bat datoz ebaluazio-irizpideekin
- Curriculumean adierazitako ebaluazio-adierazleak hautatu dira.
- Kalifikazio-irizpideak zehazten dira (proben eta ebaluazioaldian zehar egiten diren azterketen balorazioa; bakarkako zein talde lanen balorazioa; ikasgelako notak, koadernoak, jarrera...)
- Ohiko ebaluaziorako zein aparteko ebaluazio-irizpideak zehazten dira (zer erreperatu behar da? Nola eta noiz egingo da erreperazioa?)

Erreperazioak

- Erreperaziorako prozedura zehazten da ebaluazioz ebaluazio (azterketak; banakako lana; erreperazioak, laguntza ...)
- Erreperazio-prozedurak ebaluazio-irizpideetan oinarritzen dira.